

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

3485

IRAGARKIA, Bilboko (Bizkaia) farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko dena.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, Bilboko (Bizkaia) farmazia-eskualdean dagoen farmaziaren % 100 eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazten da.

Eskuratzeko interesa duten botikariek honako leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia-San Sebastián.
- Osasun Sailaren Bizkaiako Lurralde Ordezkaritza, Errekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Farmazia eskuratzeko eskabideei 274,81 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 22a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.